

HISTORIAURREKO ARKU ETA BULTZAGAILU TIROA

XXIX. EUROPAKO TXAPELKETA
SAN ADRIAN-LEIZARRATE
2019ko uztailaren 6-7an

San Adrian-Leizarrateko koba Aizkorri mendilerroan (Gipuzkoa, Euskal Herria) 1.000 metroko altitudetan dagoen tunel naturala da, eta Historiaurretik hona Iberiar Penintsula eta Europa bitarteko igarobide estrategikoa izan da.

Erdi Aroan, koba zeharkatuz galtzada-bide bat eraiki zen Gaztelako eta Frantziako erresumak lotzeko. Bere garrantziren ondorioz, Donejakue bidea bihurtu zen eta koba aldi ezberdinetan gotortua izan zen, azkenean, XIXgarren mendea bukatzean, erabat utzia izan zen arte.

San Adrian-Leizarraten eraikin eta egitura hauen hondakinak ikus daitezke gaur egun ere, nahiz eta eraispinak kobak gordetzen duen historiaurreko balioa ezkutatu duen.

2008an Aranzadi Zientzi Elkarteak San Adrian-Leizarrate kobaren ierketa arkeologikoa hasi zuen, bertako ondare arkeologikoa baloratu, aztertu eta balioan jarri ahal izateko. Egitasmo honi esker, historian zehar koban egindako egonaldi ezberdinak ezagutu ahal izan ditugu, Historiaurreraino iritsiz.

Indusketa eta zundaketa arkeologikoen bitartez Brontze Garaiko egonaldiak aurkitu ahal izan dira, Gipuzkoan ezagutzen den aldi hartako bizitokirik garrantzitsuenak San Adrian-Leizarrate izanez. Bertan aurkitu diren egiturak, zeramika zatiak, harrizko tresnak, hezurak eta landare-hondakinak, garrantzia handikoak dira nekazari eta abeltzain hauen bizimodua eta ingurumena ezagutzeko.

Are gehiago, duela gutxi Brontze Garaiko geruzen azpian egonaldi zaharragoak ere aurkitu dira, azken glaziazioaren bukaerakoak hain zuzen (12.000 urte K. a.). Aldi hotz hartan, Magdalen Aldiko ehiztari-bilketariak utzitako aztarnak (harrapakinen hezurak eta harrizko tresnak) Ebro ibarraren eta Kantauri kostaldearen arteko bizimodu ibiltariaren lekuko dira.

San Adrian-Leizarrate 2019, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aitzbitarteko Lagunak eta Ekainberri Fundazioak Europako Historiaurreko arku eta bultzagailuzko XXIXgarren tiro txapelketaren barne antolatu duten ekitaldia da, Zegamako Udalak, Gipuzkoa era Arabako Partzuergo Nagusiak eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak babesturik, jendarteari hain leku interesgarri eta garrantzitsuaren ezagutza zabaltzeko.



Uztailak 6, larunbata

11:00-13:00

Parte-hartzaileen harrera eta izen ematea.

Lekua: Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa (Zegama).

13:30

Bazkaria. Bazkarietara inskribatuak tiketak aurkeztu beharko dituzte.

Lekua: Zegamako Ostatu jatetxea.

16:00-16:15

San Adrian-Leizarraten bidean dauden lan arkeologikoen aurkezpen laburra.

Lekua: San Adrian-Leizarrate koba.

Uztailak 6, larunbata

16:00-19:00

Bultzagailuzko tiro txapelketa.

Lekua: San Adrian-Leizarrate inguruko ehiza-ibilbidea.

18:00-20:00

Historiaurreko tailerrak publiko guztientzat, EKAINBERRIren eskutik.

Lekua: Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa (Zegama).

20:00-21:00

Trebetasun froga bultzagailuz (ISAC).

Lekua: Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa (Zegama).

21:30

Parte-hartzaileen arteko adiskidetasuneko afaria. Afarira inskribatuak tiketak aurkeztu beharko dituzte.

Lekua: Zegamako elkarre gastronomikoa.

IZENA EMATEKO:

jtapia@aranzadi.eus

Uztailak 7, igandea

10:00-13:00

Arkuz tiro txapelketa.

Lekua: San Adrian-Leizarrate inguruko ehiza-ibilbidea.

13:30

Bazkaria. Bazkarietara inskribatuak tiketak aurkeztu beharko dituzte.

Lekua: Zegamako Ostatu jatetxea.

16:00

Sailkapena eta diploma eta sarien banaketa. Agurra.

Lekua: Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroa (Zegama).

